

BETIERE

Leire Arenas Belamendia, 15 urte
Azpeitia

Askotan,
ez zaitut ikusi nahi izaten
askotan,
eguzki perfektua
gorroto duen marraskiloa
naiz.

*Betiere zure
ezpainen inguruan
irristaka
mantso.*

Batzutan
oheko maindire zurien artean
aurkitu nahi izaten zaitut
eta begiratzera ere
ausartu izan naiz

*Baina ez da
normalean inor*

*hor azpian
ez badira
itzalak.*

Sarritan asmatu egiten zaitut
kafe hondarretan,
gabonetako zuhaitzetan
leiho tindatuetan
loreen petaloetan
loreen petaloetan
loreen petaloetan
...

Askotan,
denbora kale ilunetan zehar galtzen da
askotan,
kale ilun horiek irtenbiderik ez
dute.

*Bidali,
bidali segundoen orratza
informazio-bulegoren batera
mapa eskean.*

Batzutan
kale horietan goroldioak
ez du kolorerik
soilik bustia da
inguruko argi-ezaren izerdiaz

*Ez, ez dira ordea
Veneziako kale
alaiak
bustiak bai
baina tristeak*

Sarritan hizkuntza ez da beharrezkoa
denborarentzat
ongi ulertzen da
tantaka erortzean
loreen petaloetan
loreen petaloetan
loreen petaloetan
...

Askotan,
loak astiro eramaten nau
askotan
ez nago eroso bere bizkarrean
bide bihurriak
zuzen hartzen ditu

*Ondoan,
aita ikusten dut
azoka
koloretsuan.*

Batzutan
zaila zait bide hori hartzea

nire begiek
hautsitako pertsianak dirudite
eskola zahar batean

*Baina
gaua iristean berriz ere
zilar-hautsezko ilargi batek
eramaten nau*

Sarritan loa ez da nigan bakarrik erortzen
noiz edo noiz
errekako uretan etzaten da
edota
loreen petaloetan
loreen petaloetan
loreen petaloetan
...

Askotan,
hizkuntza asko menperatu nahi nituzke
askotan,
ulertzen ote nauten
galdetzen diot
neure buruari

*Ondoren
carpe diem
geroago
je t`aime.*

Batzutan
hizkuntzek neu ulertzen ote nauten
jakin nahi nuke
motz gelditzen baizaizkit
nire barrua askatzean

Gaur
mortuus ero
bihar jada
I'm dead

Sarritan neuk sortu behar ditut hizkuntzak
lehendik daudenek asetzen ez nautenak
idatzitako letra bakoitza hegaka aldegitan
eta astiro pausatzean
loreen petaloetan
loreen petaloetan
loreen petaloetan

Pentsatzen jartzen naizenetan ez zait
ezer zentzuzkorik etortzen burura
soilik negarrari atea irekitzen dizkiot
“ongi etorri gaurko nire festara”
-orduan pentsatzen dut ez duela merezi
pentsatzeak-

Eta denaren gainetik beti dut presente
inpotentzia
nahi dudana zehazki adierazi ezinaren

presentzia
sentsazio arraroa, iraunkorra, pasiboki geldoa
bere
inertzia
arnas-hartzearekin bakarrik ere, eskuetatik irris-
tatzen zait
bizia
...